



Mattin. Nahiz eta irakurle gehienentzat ezezaguna izan, segur aski Euskal Herrian dugun artista internazionalena da Mattin. Bakarka, taldean edo mundu zabaleko

hainbat jenderekin elkarlanean —Eddie Prevost, Tim (sic) Goldie, Taku Sugimoto...— soinua, musika eta gehienbat zarata sortzen du. Hogei disko argita-

ratu ditu dagoeneko bere zigiluan, w.m.o./r izenekoan. Inprobisazioan eta espazioarekiko harremanean oinarritzen du bere sorkuntzaren zati nagusia.

Soinuaren bidezidorretatik barna



MATTIN da Euskal Herriko musika esperimentaleko sortzailerik emankorrenetako bat. BLANCA ORAIA

XABIER ERKIZIA

Zinez, inguruotan aurki daitezkeen soinu sortzaile berezi eta pertsonalenetakoa da Mattin bizkaitarra. Soinu sortzailea da, bai, bereak bezalako berezitasunak dituzten artisten lanak definitzea ez delako batere lan erraza izaten. Soinua? Musika? Zarata? Segur aski bere lana edo zuzenekoren bat ezagutu duen bakoitzak bere

ikuspuntua izanen du. Gustatu ala ez, eta ahal bezain zuzenena izanik, bere musikak ordenagailuari edo eskutan duen edonolako musika tresnari garrasi eginarratzen dio, berez dena izateari utzi eta nahi adina soinu sor ditzakeen objektu zaratatsu bihurtu arte.

Bere biografiak erakusten du bere musikak etzak dituela maite, eta zirikatzen gozaten duela

erratea ez da sobera. Probakazioa maite du. Eskorbutoaren jarreratik Morton Feldman pianista eta konpositorearen isiltasun neurturaino, bidean gurutzatzen diren hainbat bidezidor gurutzatzen ditu Mattinek.

Norabide horretan Amerika, Europa, Asia nahiz Ozeaniako hainbat leku eta jaialditan jo izan du, eta esperientzia horiek, bide-nabar, nazioarteko musika espe-

perimental erradikalenaren eszenako hainbat musikari ezagutze-ko eta beraiekin lan egiteko aukera eman dio. Zerrenda luzea da: Eddie Prevost, Mark Wastell eta Tim (sic) Goldie (EB), Radu Malfati (Austria), Bruce Russell eta Rosy Parlane (Zeelanda Berria), Taku Unami eta Taku Sugimoto (Japonia), Margarida Garcia (Portugal)... Kate horri jarraituz, eta gaur egun diskoak egiteko eskura ditugun baliabide oinarrikoenekin hasita, musikari horiekin egindako lanak argitaratzeko bere disketea ere antolatzen zuen: w.m.o./r. Gaurdaino ia 20 disko argitaratu ditu. Orain, haren proiektu aktiboak Billy Bao punk talde latza, bakarkako lanak eta musikaren inguruko bertze hainbat lan dira. Orain dela gutxi, bertze musikari batek erran zuen bezala: Mattinek musika jo baino musikaz pentsatu eta pentsarazi egiten du.

«Londresen egin nuen egonaldia erabakigarria izan zen. Musika esperimentaleko kontzertu anitz ikusteko aukera izan nuen han, eta batzuek markatu egin ninduten: Massona, Parmentier, Filament, John Tillbury... Baina orain egiten dudana egiteko esperientzia erabakigarria Eddie Prevostek ortziralero antolatzen duen musika inprobisatuari eskainitako lantegia izan zen. Londresko jende interesgarria eta aktiboa ezagutu ahal izan nuen, eta niretzako aukera ezin hobea izan zen bertzelako musikariek gauza berriak saiatzeko eta horiei buruz hitz egiteko».

«HAN. «Interesgarria da musika esperimentala egiterakoan leku araberako sentsibilitateak daudela ikustea. Japonian izugarriko kontrasteak aurki ditzakezu, Hijokaidanen zarata bortizetik Taku Sugimotoren gitarra jotzeko modu ultraminimalistara. Zeelanda Berrian lo-fi soinuari ateratzen dioten etekina aski berezia da, edo Frantzia *musique concrete*-arekin lan egiteko duten modu pertsonala... Ez da, ordea, nire helburua kultura nazional bati edo bertzeari buruz mintzatzea, baina interesgarria da leku bakoitzeko bizi egorek eta historiari musikagintzan uzten duten arrastoari erreparatzea».

«HEMEN. «Nahiz eta komunitatea bultzatzen duten azpiegitura batzuk badauden, Bilbon bereziki zaila da alor honetan lanean ari garen eta elkarrekin maiz biltzen garen jende talde finko bati buruz solastatzea. Jendea badago, noski, baina oraingoz ez dago komunitate gisakorik. Horregatik, zaila iruditzen zait neure burua euskal eszena gisako baten barnean

irudikatzea, ez baitakit Euskal Herrian musika esperimentalean eszenarik dagoela erraten auzartuko nintzen ere. Badago aski gauza interesgarriak egiten ari den jendea, modu desberdinetan, baina bereziki proiektu jakin batzuen inguruan».

«MUSIKA. «Asko maite dut inprobisatuz eta bertze jenderekin lan egitea. Une bakoitzean, zuk daukazunetik eta egoera horrek eskaintzen dizunetik hobereana ateratzen irakatsi dit. Behin jotzen hasi eta gero, ez dago atzera egiterik. Beharbada, une jakin horretan egiten ari zarena guztiz epaitzeko beharrezko distantzia gal dezakezu, eta gertaera hori, kantuetan edo konposizioetan gertatzen denaren guztiz aurkakoa da. Konposizioak ideien depurazio gisako bat bezala ulertzen ditut. Inprobisazioan, berri, jotzeko modu aski desberdinek bat egin behar dute, ahalik eta modu eraginkorrenean edo mila pusketatant lehertuz, hori ere interesgarria izan baitaiteke».

«DISKOAK. «Inprobisatzerakoan zentzu guztiek parte hartzen duten komunikazioa sortzen da, memento horretan jotzen ari zaren musikariek, espazioarekin eta entzuleekin. Hori, zoritxarrez, ezin da plastikozko pusketa batean bildu. Nire disko batzuk, *Mendietan* edo *Vault* erraterako, liburuxkan gehituta azalpenekin eta bertzelako testuekin edo irudiarekin osatu ditut. Niretzat, diskoak, norberaren inspirazioa, ideiak edota nazka ere sor ditzaketen elementuen meta gisakoak dira. Soinua sortzeko eta grabatzeko, era desberdinak erakusteko eta bizi garen sistemaren zarata sortzeko zer bertzelako erranahiak dituen ulertarazteko duten gaitasuna da garrantzitsuen».

«AUTOARGITALPENAK. «Gaur, alor honetan lanean ari den musikari batentzat diskoak norberak argitaratzea da bide ohikoena. Nahi duzun ermittan lan egiteko aukera ematen dizu. Oraingoz, CD guztiak modu naturalean sortu dira. Batzuk, interesgarriak izan arren, bertzelako labeletan lekua aurkitzeko zailtasunak dituzten lanak dira, edo kontzeptualki lan egiten duten artistenak, Julien Ottavieren kasuan bezala. Horrek CD-R formatua bera guztiz *hackeatu* du, eta bere konposizioetan erabiltzen dituen frekuentziak esker bere burua hondatuko duen CDa sortu du. Gainera, software askea erabiltzen du musika egiteko, eta hori gaur egun bultzatu beharrekia iruditzen zait».